

Urrezko Aizkorako hirugarren postua jokoan

ETB1 • 16:05ean

Mindegia Ezkurrakoa eta Nazabal Etxarrikoa Urrezko Aizkorako hirugarren posturako lehian.



gaurko filmak Ane Muñoz

■ **YANQUIS.**


Schlesinger ezagunaren lan txikienetakoa da, Richard Gere eta Vanessa Redgravek protagonizatua. Hiru soldadu amerikarrek, gerra giroan, hiru neska britainiar ezagutuko dituzte. Argumentua, hain zuzen, seikote horren gorabehera sentimentalengurua garatzen da. Argumentu alde-tik arrunta bada ere, atsegina da eta erraz ikusten da.

■ **LARAMIEKO GIZONA.**

Anthony Mannek sinatutako *western* gozagarri honek oso aurpegi ospetsuak ditu: James Stewart eta Arthur Kennedy, beste izar garrantzitsuz inguratuta azaltzen dira. Lehena anaiaren hiltzaileez mendekatu nahi da. Irudi zoragarritz jositako abentura fina da, batzuetan biolentoa, baina oso ederra. Euskaraz ikusteko aukera hau ez zenukete galdu behar.

■ **LOCAL HERO.**

Zinta interesgarri eta animatu honek Burt Lancaster zenaren presentziak gozatzeko aukera eskaintzen digu. Hura da protagonista hutsa, eta hark betetzen ditu plano nagusiak. Ohitura eta tradizio ezberdinen arteko kontraesanak hartzen ditu abiapuntutzat; gaizki-ultertzeak eta egoera ezeroso bezain barregarriak biltzen ditu. Nahikoa arrakastatsua bilakatu zen joan den hamarkadaren hasieran, eta gaur egun maiz alokatzen dute bideo-dendetan. Elkarriketa eta eszena gehientsuenak oso fin eta entretenigarriak direnez, ziurtatzen dizuet gustura ikusiko duzuela. Bestetik, Mark Knopflerren soinu banda kontuan hartzekoa du. Forsyth zuzendariak, estatu batuar enpresari handinahien jokabidea salatzen du, Eskoziako herrikka batean garatzen diren kontuon bitartez. Eskoziarren izaera herrikoari barre egiten dio, halaber.



Daniel Day-Lewis da *El último mohicano* filmeko protagonista.

Daniel Day-Lewis jatorra, Cooperren azken mohikanoa

■ **EL ULTIMO MOHICANO.** Fenimore Cooperren izenburu bereko eleberrri ospetsu baten azken egokitzearen zimenatografikoa da, Michael Mannek luxuzko aktoreekin filmatua. Daniel Day-Lewis (*The Boxer*) britainiar aktore erakargarria da protagonista, hau da, azken indio mohikanoa, eta Madeleine Stowe modakoa dauka alboan. Kanadako lurren jabegoa lortu nahi duten frantziarren eta britainiarren arteko guda du abiapuntutzat. Diru eta baliabide askorekin egina, oso film entretenigarria da, gozagarria, eta arretaz ikustekoa. Bide batez, amodiozko istorio eder baten lekuko izan nahi baduzue, aukera polita duzue.

ETB 1

- 07:00: Gure lanbide zaharrak.
- 07:50: Perretxikoen mundua.
- 08:10: Superbat. Marrazki bizidunak eta telesailak. *Yogiren taldea, Hirukiak, Fudge, Scooby Dooren abentura berriak, Atlantidako printzea.*
- 10:15: Egi bidean.
- 10:30: Meza Santua.
- 11:30: Kirolez kirol. Kirol eskalada: mundu mailako marka. Euskal Mendi Federazioaren 75. urteurrena.
- 12:30: Pilota. Euskal federazioen arteko finalak (afizionatuak).
- 14:00: Gaur egun.
- 14:25: Hitzetik hortzera.
- 15:10: Ertzainak. Telesaila.
- 16:05: Herri Kirolak. Urrezko Aizkora. Mindegia (Ezkurra)-Nazabal (Etxarri).
- 17:00: Kirolez kirol. Pilota: Eskuz binaka: Esain-Arroyo II / Chafee-Otxandorena. Etxaniz-Santi / Olaizola I-Berna.
- 19:30: Gaur Egun. Albistegia.
- 19:50: Kirolez Kirol.
- 21:30: Goenkale esker 1.000.
- 22:30: Mendizaleen 75. urteurrena.
- 23:45: Zine oro. Laramie-ko gizona. Zuzendaria: Anthony Mann. Aktoreak: James Stewart, Arthur Kennedy, Donald Crisp. 1955.
- 01:25: Darabilgun euskara.
- 02:30: Hitzetik hortzera.
- 03:15: Hitzaro.
- 03:40: Iparraldea: Le magazine du Pays Basque.
- 04:05: Teknopolis.
- 04:30: Canyon Dreams.
- 04:40: Itsaso guztiak.
- 05:25: Haran eta gailur.
- 06:25: Herri musika sorta.

ETB 2

- 08:05: Desde el gallinero.
- 08:25: Del pais de los vascos.
- 09:00: Tiempo para Euskal Herria.
- 09:05: Oficios tradicionales.
- 09:35: Luar.
- 10:35: Vida salvaje.
- 11:20: Europa, Europa.
- 11:50: Teknopolis.
- 12:20: Palabra de ley.
- 12:50: Lengua viva.
- 13:20: Sustrai.
- 14:00: ETB Kirolak.
- 14:28: Teleberri.
- 15:30: Zinema. **El último Mohicano.** Zuz.: Michael Mann. Akt.: Daniel Day Lewis, Madeleine Stowe, Russell Means. 1992.
- 17:40: Zinema. **Yanquis.** Zuz.: John Schlesinger. Akt.: Richard Gere, Vanessa Redgrave, William Devane. 1979.
- 20:05: Zoombados. Dokumentala.
- 20:05: Zoombados.
- 20:58: Teleberri.
- 21:30: El derby.
- 22:15: Camara acción. **Misión de justicia.** Zuz.: Steve Barnett. Akt.: Brigitte Nielsen, Jeff Wincott, Luca Bercovici. 1992.
- 00:25: La noche fantástica. *Más allá del límite: 'Una edición especial', 'La última cena', 'Historias de la cripta' (01:25ean): 'Abra cadaver', 'Peso muerto', 'Cuentos asombrosos' (02:55): 'Vanessa en el jardín', 'El concurso de calabazas', 'Sábado mágico'.*
- 04:05: Asteberrri.
- 04:45: Europa, Europa.
- 05:10: Empresa vasca.
- 05:40: Amaiera.



irratia ♦

Euskadi Irratia. Arantza Arza eta Jexux Artetxe *Bide batez* mendizaleen gisan agertuko dira gaur 10:00etatik aurrera: mendizaletasunak egun berezia du gaur, Euskal Mendi Federazioak 75 urte bete dituelako. 1924an Elgetako plazan egindako topaketaren bidez sortu zen erakunde hori. Gaur, sortu zen toki berean, ekitaldiz betetako goiza prestatu dute, eta hantxe izango da Euskadi Irratik unitate ibiltaria, mendizale guztiak hitz egiteko prest. Horretaz

gain, iganderoko moduan joango dira *Bide batez* saioko hiru orduak. 11:00etatik 12:00etara, Aitor eta Iñigo Epelde trikitilariak Euskadi Irratik entzuleei igande alaiagoa pasarazten saiatuko dira.

Herri Irratia. Asier Tutor eta Nagore Olkutz esatariek albiste garrantzitsuak azalduko dituzte Donostiatik, *Goizean goiz* saioan. Ordu berean, 08:00etan, Loiolako Herri Irratiak errosarioa eskainiko du.

Hurrengo orduan meza emango dute, eta 10:00etan *Goizean goiz* saioa itzuliko da. 11:30etan *Titanic* musika irratsaioa izango da. Eguerdian kirol munduak hartuko du protagonismoa *La movida deportiva* saioan. 14:30etan Jesus Torquemadaren *Brújula* saioaren txanda izango da. Eta arratsaldeko lehenengo orduak musika estilo ezberdinekin beteko dituzte Herri Irratian. 18:30etatik aurrera, berriz, futbola izango da nagusi.

| | | | |
|---|------|--|------|
| Qué muerto de novio Bob Balaban 12:00 TVE1 | ♦♦ | Romance peligroso 1997, Pierre Courge 22:30 C+(e) | ♦♦ |
| El último mohicano 1992, Michael Mann 15:30 ETB2 | ♦♦♦ | Le maître de guerre 1986, Clint Eastwood 22:40 F1 | ♦♦♦ |
| Aprendiz de aventurero 1995, William Bindley 15:35 TVE1 | ♦♦ | Laramieko gizona 1955, Anthony Mann 23:45 ETB1 | ♦♦♦♦ |
| Eterna venganza 1998, Marc S. Crenter 15:35 A3 | ♦♦ | Arquitecto en apuros 1995, Fred Walton 23:55 TVE1 | ♦♦ |
| Pánico en el autobús 1998, Richard Huber 16:25 T5 | ♦♦ | La machine à explorer le temps 1960, George Pal 00:25 F3 | ♦♦♦ |
| Aeropuerto 77 1977, Jerry Jameson 17:30 TVE1 | ♦♦♦ | Cita mortal 1992, Patrick Jamain 01:30 A3 | ♦♦ |
| Yanquis 1979, John Schlesinger 17:40 ETB2 | ♦♦♦ | Funeral en Berlín 1966, Guy hamilton 01:45 T5 | ♦♦♦ |
| Ceux qui m'aiment prendront... 1997, Patrice Chereau 20:35 C+(e) | ♦♦ | Los gallos de la madrugada 1970, Jose Luis Saenz de Heredia 02:10 La2 | ♦ |
| Local Hero 1983, Bill Forsyth 20:50 Arte | ♦♦♦ | Al final del verano 1995, Linda Yellen 02:55 TVE1 | ♦♦ |
| Promotion Canapé 1990, Didier Kaminka 20:50 F1 | ♦♦ | La casa del exorcismo 1975, Mario Brava 03:10 A3 | ♦♦ |
| La haine 1995, Mathieu Kassovitz 21:00 F2 | ♦♦♦♦ | Fiesta en el Caribe 1958, Jose Luis Zavala 03:50 La2 | ♦♦ |
| Vaqueros en Nueva York 1994, Gregg Champion 21:40 TVE1 | ♦♦ | Chinos y minifaldas 1968, Ramon Comas 04:30 TVE1 | ♦ |
| Misión de justicia 1992, Steve Barnett 22:15 ETB2 | ♦♦ | | |

♦ ♦♦ ♦♦♦ ♦♦♦♦ ♦♦♦♦♦
TXARRA ESKASA BALEKOA ONA BIKAINA